

EGA 2020

COVID-19

Antolamendu arau berriak

1) Deialdiak

C1 mailako Euskara Gaitasunaren egiaztatzeko azterketak antolatuko dira 2020an Iparraldean.

Covid 19 osasun krisia dela-eta, C1 maila egiaztatzeko probak, deialdi irekiz, azterketa bakarrean izanen dira: 2020ko udazkenean.

2) Nori irekiak: baldintzak

Azterketa gaiak bere baitatik edo ikastetxe batean landuz, C1 mailako (EGA) gaitasun-agiria eskuratu nahi duen edozein¹ pertsonari zuzendua zaio, deialdi irekiz, 2020ko abenduaren 31n berantenez 17 urte betetzen dituen unetik; hots 2004ko urtarrilaren 1.a aitzin sortua. Salbuespen bakarra: 2003an sortu baina 2003koen ikasgelan diren azterketariak.

Azterketan parte hartu ahal izateko 24 €-ko saria ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko.

Azterketa egunean nortasun agiri bat aurkeztu beharko du azterketariak.

3) Azterketen leku-egunak

2020ko agorrilean, EEPko webgunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko egiaztapen dispositiboaren epe eta kokaguneak.

4) Errepikapenak

Azterketari bakoitza nahi bezainbat aldiz aurkeztu ahal da azterketa bakoitzera.

Antolaketa eta baliabide arazoak direla medio, azterketari kopuru mugatua onartuko da azterketara, baldintza geografikoa kontuan hartuz: frantziar Estatuan sortu, bizi, lan egin edo ikasten ari diren azterketariak baizik ez dira onartuko.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere azterketa ikusi nahi balu, Batzorde Zientifikoak finkatuko duen data batean egin lezake. Osasun krisiarengatik, gerta liteke data hori ez 2020an berean izatea.

6) Baliogabetzea

Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiutzen den azterketaria, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izanen da eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

7) Azterketaren iragan molde zehatza

Azterketa idatziaren iragan moldea: **2020 C1 Azterketa eredua** dokumentuaren arabera egingen da. 2020ko osasun krisiarengatik errespetatu beharko diren segurtasun baldintza bereziak (masken derrigorrezko erabilera, pertsonen arteko distantziak errespetatzea, eskuak usu ikuztea...) bertan zehaztuak dira.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **2020 C1 Azterketa eredua** dokumentuaren arabera egingen da. 2020ko osasun krisiarengatik errespetatu beharko diren segurtasun baldintza bereziak (masken derrigorrezko erabilera, pertsonen arteko distantziak errespetatzea, eskuak usu ikuztea...) bertan zehaztuak dira.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu aztertzaile talde baten aitzinean frogatu beharko du C1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragina gaitasunak eskuratu dituela.
- Azterketa taldeko batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketara aurkezturikoaren nortasun agiria egiaztatu eta azterketaren alde teknikoa segurtatuko du (izen-deituren hartzea, minutuen neurketa...), besteak azterketaria galdekatuko duen bitartean.